

IL AZALPEN PROBA • <i>Ostiralak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Entzun adi. Istorio epikoa izango da, abenturetako, eta pertsonaia nagusia infernuko deabru baten eta mundu honetako emakume baten arteko maitasun debekatutik sortutako gizona izango da. Bere izaeraren ondorioz, betiko noraezean erratzera kondenaturik egongo da eta askapena bereganatzeko aukera bakarra izango du: gotorleku sendo baten bizi den herensuge beldurgarri eta garaitezina hiltzea. Horixe izango da abiapuntua eta heroiak, bere helburua betetzeko, mila eta bat arrisku gainditu beharko ditu, ezkutari lana egingo dion belzkote gihartsu baten laguntzaz. Horrez gain, noski, printzesa eder batekiko istorio erromantikoa agertuko da tartekaturik.

Toni, hitz horiek esanda, isildu eta begiak zabal-zabalik geratu zitzaigun begira, entzuleon mirespenezko laudorioen zain balego bezala. Hortik gutxira, baina, haren aurpegiera aldatuz joan zen, gure itxurazko arduragabekeriaren ondorioz

—Zer gertatzen da? Zergatik begiratzen didazue horrela? Ez zaizue ideia ona iruditzen, ala?

—Tira, istorioa originala bada, baina... –esan nion nik, beste lagun biak ezertxo ere esateko gogo barik ikusita.

—Baina zer? Zer falta zaio maisu-lana izateko? Fantasia, abentura, erromantizismoa, arraza-aniztasuna... dena dauka!

IL AZALPEN PROBA • <i>Ostiralak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Oskar, badauzkazu giltzak, ezta? Ea, ekarri.

—Lasai, lagun. Zertarako horrelako presa? Lehenengo gabon! edo egunon! Aupa, neskatxa! *Nondik aterako zuen Gaizkak honelako opiltxoak? A ze titi pareak! Eta zelako irribarretxoak! Eta zelako...*

—Giltzak atera ba! –premiatu zuen lagunak.

—Banoa, banoa. Ea non dauzen... Hemen, hartu. *Batzuek hainbeste eta beste batzuek hain gutxi. Nik gaur kalabaza mordoa baino ez dut batu. Gaizka kabroiak, berriz, zelako fitxajea dakarren!*

Ataria ireki, igogailua hartu eta pisuan sartu ziren hirurak. Zortziak laurden gutxiago ia-ia. Nahikoa, denbora alferrik galdu ezean.

—Ni ohera noa zuzen, ze ez dut molestatu nahi. Bihar arte! edo gero arte!

—Agur, Oskar.

Azkenik Gaizka eta Laura, Laura eta Gaizka, bakar-bakarrik geratu ziren etxeke sukaldean. Han, zalantza kilikagarriz betetako segundo batzuen ostean, neskatila mintzatu zen:

—Eta orain? *Ea ba, mutil! Ez daukagu goiz osoa, ezta?*

—Noski, ia ahaztu zait kolakaoa. Momentu baten berotuko dut esnea. *Nahi ote du? Ez ote du nahi?*

IL AZALPEN PROBA • <i>Ostiralak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta marginak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Bete beharreko laugarren atala ohikoena zen, gizon heterosexualentzako zerbitzua, eta horretarako ere bageneukan pertsona ezin hobea: Edurne. Zelan azaldu, baina, gure proiektua?

Gau hartan bertan, afalosteko txirriak erre bitartean, ia hitz totalka proposatu genion gure planean parte hartzea. Pikutara bidaliko gintuelakoan geunden eta sekulako ustekabe atsegina izan zen guretzat haren berehalako onarpena.

—Ostia! —oihukatu zuen, beragan ohikoa ez zen berotasunaz—. Zelako ideia ona! Zelan bururatu ote zaizue hori zuei bakarrik?

Horrela sortu zen gure elkarte: ESMK. Hurrengo egunetan, astirik galtzeke, sigla horiekin hornitutako panfletoak zabaltzeari ekin genion hortik zehar eta propaganda sartu genuen hainbat egunkari eta aldizkaritan.

Ausartuko zinateke zerbait berria eta desberdinarekin? ESMK!